

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteazkena, 2012ko azaroaren 28a. IX. urtea. 2.441. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Udaletxeetan Espainiako bandera jartzeko agindua iritsi da eskualdeetara

Zizurkil eta Lizartara iritsi ziren Espainiako Gobernuaren lehen eskaerak, baina jada Tolosaldeko eta Leitzaldeko gainontzeko herrietara ere iritsi dira gutunak

Herri gehienetan etxeetako leiho eta balkoietan ikurrinak jartzeko eskatu dute; Bai Euskal Herriari ekimenak ere ekitaldiak antolatu ditu «inposaketari» aurre egiteko **4-5**



ITERBAILLOS

**Garbiñe Biurrun** Epailea

### «Tasa judizialak igo izanak pertsonen eskubideak murrizten ditu»

Tolosako epailea Espainiako Gobernuak epaitegietara jotzerakoan ezarritako tasa berrien kontra azaldu da; bi helburu ditu lege berriak dirua biltzea, batetik, eta epaitegiei lana kentzea, bestetik **6**

### Euskaraz Bizi! Eguna egingo dute Tolosan, larunbatean

Bost eragilek egun osoko egitaraua antolatu dute; bazkaria ere egingo dute Plaza Berrian **2**



Eguna antolatzen ari diren 5 eragileetako hainbat kide aurkezpenean. I.U.

### Zentzumenez beteriko lana, Titirijai jaialdian

Anita Maravillas taldeak 'Blue Bird' emanaldia eskainiko du Tolosako txotxongiloen festan **3**

### Zelarainek kalean behar duela esan dute

Villabonako Udalak presoaren askatasuna eskatu du eta egoera oso larria dela nabarmendu **7**

2012  
txuleta festa  
tolosa  
AB. | 6 | 7 | 8 | 9



2012ko txuleta festa  
Abuztuaren 6-9

# Sentsibilizazio eta festa eguna, euskaraz bizitzearen alde

Larunbateko festaz gain, bihar Xabier Amurizaren hitzaldia izango da Tolosako udaletxean

**Itzea Urkizu** Tolosa

Euskaraz Bizi! Eguna antolatu dute, larunbat honetarako, Tolosako bost eragilek. Galtzaundi Euskara Taldea, Lizardi Kultur Elkartea, Oargi Elkartea, Bai Euskal Herriari eta Tolosako Udala elkarlanean aritu dira, festa eta sentsibilizaziorako bidea irekitzea helburu duen eguna antolatzeko.

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira prestatutako egitaraua da, eta helbururik behinena «euskararen erabilera eragitea» izango da, Amaia Doyaguek eta Maialen Jauregik azaldu dutenez: «Gure erroka, herritar guztiek, euskararen alde egotetik, euskaraz bizitzerako jauzia ematea da, eta elkarrekin eman nahi dugu jauzi hori, euskararen erabilera eremu guztietara zabalduz».

Bide beretik, ordea, euskara ospakizun bihurtu nahi dute, eta

baita euskararen esparruan lan egin dutenei omenaldia egin ere. Horrela, beraz, Doyaguek, Tolosako herritar eta eragile guztiak larunbat honetako jardueretan parte hartzera deitu ditu.

11:00etan hasiko dira jarduerak, Eskerrak Zuri aipamen berezien sari banaketarekin. Tolosako udaletzeko batzar aretoan ospatuko dute ekitaldia, eta Mapi grabatuak, Txapin Festa eta euskarara hurbildu diren norbanakoak izango dira aurtengo omenduak. Jarraian, 12:00ak inguruan, festa giroa piztuko da, eta Tontokalen pintxoak eta sagardoa izango dira eskuragarri.

Eguerdikoteoaren ostean, bazkaria izango da Plaza Berrian. Lehenik, 13:30ean, euskarari babesa eman diotenen argazki erraldoia aterako dute, eta bideo bat ere proiektatuko dute bertan. 14:00etan, berriz, bazkariak gain, ikuskizuna ere izango da: bertso-larritza eta komikigintza uztartuko dituzte. *Anubis 3.0 Arimaren pisatzea* komikiaren egilea da Dani Fano donostiarra, eta Adur Larrea marrazkilaria. Laguntza izango du, eskualdeko bertso-larriek bat-batean abestuko dituzten kontakizunak irudikatzeke.

Bazkarirako txartelak Tolosa-



Maialen Jauregi eta Amaia Doyague, Euskaraz Bizi! egunaren aurkezpenean. I. URKIZU

ko Raku, Xirimiri, Denak eta Eguzki tabernetan erosteko aukera dago, 12 euroren truke. Langabetuek, berriz, 8 euro ordaindu beharko dute.

## Manifestaziorako deia

Festa giroarekin batera, aldarrikapenak ere izango du tarterik, eta Kontseiluak larunbaterako Donostian deituriko manifestaziorako autobusak antolatu dituzte bost eragileek. 16:30ean Larremendiko autobus geltokitik irtingo da autobusa, eta hura amaitu eta gero Tolosara itzuliko dira berriz.

Autobuserako izen-emate zerrrendak bazkari txartelak salgai dauden tabernetan jarri dituzte; Raku, Xirimiri, Eguzki eta Denak

tabernetan, alegia.

Donostiara joan beharrean Tolosan geratzea erabakitzen dutenek, ordea, Oargiko txarangak girotutako poteoaz gozatzeko aukera izango dute. Azkenik, eta eguna borobiltze aldera, Plaza Berrian kontzertuak izango dira gauean: Wainot, 3gabe2 eta DJ Little Martin Seletah ariko dira.

Azkenik, aipatzekoa da, antolatzailleek, *Euskaraz bizi nahi dut!* leloarekin bat eginez, Galtzaundiko bulegoan kamisetak eta banderolak eskuragarri jarri dituztela.

## Amuriza euskara batuz

Larunbateko jardueraren sortaren atariko gisa, eta Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, Zaz-

*pi ebidentzia birjaiotzarako* izeneko hitzaldia eskainiko du batzar aretoan, bihar, Xabier Amurizak.

Duela bi urte argitaratu zuen Amurizak, *Euskara batuaren bigarren jaiotza* lana, eta haren jarraipen moduko bat eskaini nahi izan du, *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako* liburuarerkin.

Finean, liburuko edukiaz ariko da, Xabier Amuriza, hitzaldian ere. Euskarak, inguruko hainbat hizkuntzen artean sortu den lexiko komun horretatik edan beharko lukeela uste du berak, eta horren erakusgarri, 2.000 aleko zerrrenda osatu du liburuan; hitz hauek euskal hiztegiaren txertatu beharreko zatiz jotzen ditu berak.

•tolosa@hitza.info

# Euskararen Eguna ospatuko dute bi eskualdeek

**I. Urkizu**

Euskararen Nazioarteko Eguna Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste hainbat herritan ere ospatuko dute, asteburuaren bueltan.

Alegian larunbatean hasiko dira Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko jarduerekin.

Horrela, 22:00etan *Barrura begiratzeko leihoak* eskainiko dute kultur etxean. Igandean, berriz, Sutarri dantza taldeak antolatuta, dantzari txiki eguna izango da Alegian.

Euskararen egunean bertan, azkenik, 18:30ean, kafe-tertulua antolatu dute liburategian.

Albizturren ere euskarari gorazarre egin, eta euskarazko hitz politen lehiaketa antolatu dute eskolako ikasleek, abenduaren 3rako. Eskolan eta Herriko Etxeko tabernan kutxa bana jarri dute, eta abenduaren 3ra bitarte, euskarazko hitz politen proposamenak egin daitezke.

Abenduaren 3an, arratsaldean, papertxo guztiak bildu eta bertaratuak bertsoak eta poemak sor-

tu dituzte. Ondoren, askaria egingo dute.

Ikaztegiaren ostiralean zine gaua antolatu dute, 20:00etan hasira. Inaki Beraetxek aktoreak aurkeztuta, Goenkaleko aktore ohia den Jose Mari Garmendia ikaztegiarraren 4 film labur ikusi ahal izango dira. Jarraian, berria, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko afaria eta kantaldia izango dira Herri Ostatuan, Unai Urretabizkaia eta Jone Garmendiaren eskutik.

Azkenik, Zizurkilen, abenduaren 3an bertan sinatuko dute, Pedro Mari Otaño ikastetxean, Euskararen Eguneko hitzarmena, 16:00etan.

## Areson ere, euskara jai giroan

Etzi hasiko dira, Areson, Euskararen Eguneko ospakizunak, eta 19:00etan *Gaizkileen muga* hitzaldia izango da udaletxean, Nafarroako konkistaren inguruan.

Egun indartsua, ordea, larunbata izango da, eta goizean goiztik euskal joko tradizionalak eta herriko ondarean argazki lehiaketa izango dira. Ondoren, 11:00etan talo tailerra egingo dute haurrek, eta herritarrei banatuko dizkiete egindakoak, 11:30ean.

17:00etan, berriz, trikitixa txapelketa izango da, txokolate jateaz lagundurik. Azkenik, 21:00etan, herri afaria egingo dute Larrea elkarrean. Sastinea tabernan erosi beharko dira afarirako txartelak, eta antolatzailleek baserriren jantziekin parte hartzeko deia egin dute.

Egitaraua borobiltzeko, azkenik, eta Euskararen Nazioarteko Eguna bera jardueraz atonduz, Jagoba Rekondok hitzaldia eskainiko du, astelehenean, landare eta baratzei buruz. 17:00etan hasiko da saioa, eta udaletxe gaineko solairuan izango da.

•tolosaldea@hitza.info

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## ↓ Iragarki laburrak

### LAN BILA

**Etxeko lanetarako.** Etxeko lanak egin, edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesa duen edonork, dei dezala honako telefono zenbakietara: 943 69 68 82 / 606 52 19 92.

# 1920ko sentsualtasunaz kontaturiko amodio istorioa, 'Blue Bird' emanaldian

Txile, Euskal Herria eta Herrialde Katalanetakoak dira Anita Maravillas konpainiako kideak

## Itzea Urkizu

30. Titirijaiko gaiari jarraituz, eta Joan-etorriko txotxongiloak ohol-tzara igoz, Anita Maravillas konpainia euskaldun-txiletarrak *Blue Bird* ikuskizuna eskainiko du, bihar eta etzi, Tolosan. 11:00etan eta 14:00etan izango dira emanaldiak, Leidor aretoan, eta ikasleei zuzendutako saioak izango dira laurak.

2005. urtean sortu zen, Bartzelonan, Anita Maravillas konpainia. Miren Larrea amorebietarra eta Valentina Raposo txiletarra izan ziren sortzaileak, eta biek ala biek, antzerkiarenganako eta txotxongiloenganako grina izan zuten abiapuntu. Gerora, Elorrioko Iam Agorria eta Bartzelonako Mireia Nogueras hasi ziren eurekin lanean, eta ondorioz, hainbat jatorri eta kulturetako jendea elkartu ziren.

Konpainiako kideek, ordea, jatorriari baino, garrantzia handiago ematen diote, elkar-ulerzte horri: «Norberaren jatorriaz haratago, zailena, komunikatzerakoan eta sortzerakoan gustura sentiarazten zaituen jendea aurkitzea da. Eta hori aurkitzen duzunean, ezin diozu alde egiten utzi; oso aberasgarria da. Honek edozein muga gainditzen du, eta honek batzen gaitu», azaldu du Valentina Raposok.

## Amodio istorio bat

*Blue Bird* ikuskizuna 20ko hamarkadako sentsualtasuna duen maitasun istorio bat da, eta abenturak ere badira tartean.

Gainera, Raposok azaldu duenez, ikus-entzuleen zentzumenekin egin beharko dute saioan zehar: «Zentzumenez beteriko ikuskizuna da, ia testurik ez baita gidoiean».



'Blue Bird' ikuskizuna eskainiko du Anita Maravillas konpainiak. HITZA

Valentina Raposo • Anita Maravillas konpainiako kidea

## «Txotxongiloen itxura helarazten ari zaren mezuaren zati da»

### I. Urkizu

Lehenago ere izandakoak dira Tolosako Titirijai jaialdian, Anita Maravillas konpainiako kideak. Euskal Herrian hamaika saio eskaintzen dituztela nabarmendu du Valentina Raposok, eta gaur eta bihar ariko dira Leidorren.

Ikusle guztiei zuzenduriko saioak prestatzen dituzte, eta metafikzioa, antzerkia antzerkiaren barruan, lantzea gustuko dute. Horrez gain, antzerki taldeko kideek euren tailerren sortzen dituzte, gero ohol-tzara igotzen dituzten txotxongiloak.

**Txotxongilolari eta txotxongiloaren arteko harremana asko lantzen duzue, zergatik?**

Gure ustez txotxongiloekin egin-dako antzerkia horrekin jolasten du hasieratik, eta antzerki mota honetako hizkuntzaren zatia da hori; txotxongiloa beti txotxongi-

lolarik mugitzen du, edo alde-rantziz. Joko hau oso poetikoa da, eta metaforaz betea, eta oso interesgarria zaigu guri.

**Horretarako meta-fikzioa darabilzue.**

Adibidez, aktore bat txotxongilo mugitzen ari denean, bat-batean, txotxongiloa bera konturatu egiten da, eta begiratu egiten dio aktoreari. Horrelako gauzeekin jolasten dugu askotan. Une batez, azaltzen ari garen horretatik irteten gara, eta gehienetan *gag* laburrak besterik ez dira izaten; beste batzuetan, berriz, istorioa bera horrelakoez beterik sortzen dugu.

**Zein da haurrei edo helduei begirako emanaldiak prestatzearen arteko desberdintasuna?**

Ez zaigu gustatzen haurrentzako antzerkia bakarrik egitea, eta 'ikusle guztientzat' kontzeptua egokiagoa dela uste dugu. Baina

helduen ikuskizunei dagokienez, batez ere, gaiak eta erabiltzen dugun hizkera izaten dira desberdintasuna markatzen dutenak. Adinagatik, haurrek zenbait gauza ez litzukete ulertuko.

**Eta txotxongiloak haurrentzako direla diotenei zeresango zenieke?**

Etor daitezela, eta harritu daitezela. Dena den, normalean helduak bertaratzen dira gure ikuskizunetara, eta gure helburuak betetzen ditugula uste dut, izan ere, haurrek bezainbeste gozatzen dute.

**Erabiltzen dituzten txotxongiloak zuek sortzen dituzte.**

Tailer bat dugu. Oso gustukoa dugu eraikitzea, eta, azken finean, txotxongiloen itxura, helarazten ari zaren mezuaren zati dela uste dugu. Hori ere ikuskizunaren zati da. Gainera, panpinak asko lantzen saiatzen gara, eta estetika-ren aldetik lanordu luzeak eman dizkigu horrek.

## Langile bat zauritu da Leitzako Sarriopapel paper fabrian

R. Calvo Leitza

Langile bat zauritu zen atzo, 13:30ak aldera, Leitzako Sarriopapel paper fabrian. *Berria* egunkariak argitaratu duenez, Xanti Uterga erremontista da zauritua, 28 urte ditu eta Doneztebekoa da.

Gazteak besoetako bat, ukondoaren gainetik, makina batean harrapatu zuen eta istripuak zauri larriak eragin zizkion. Gizonezkoa ohiko anbulantzia batean eraman zuten lehenik, baina gero osatuago batera aldatu zuten Iruñeko San Miguel klinika eramateko.

Istripua ikertzen ari dira Polizia Zientifikoko eta Judizialeko kideak.

## → Laburrak

### Araiaiko erailketaren aurkako mobilizazioak

**GIZARTEA** Araian gizon batek, ustez, bere emaztea hil zuen atzo, ondoren bere buruaz beste eginez. Emakumeen Mundu Martxako plataformak, albistea prentsa idatzian atera eta 24 ordu-tara, mobilizazioak egingo ditu herrietan. Tolosan, bihar, 19:00etan bilduko dira Trianguloa plazan. Leitzan, berriz, 20:15ean elkartuko dira.

### Irristaka patinaje taldearen aurkezpena

**KIROLA** Tolosan Irristaka patinaje taldea sortu berri dute, eta berau aurkezteko, bihar 20:00etan bilera antolatuta dute kultur etxean. Patinajea gustuko duten herritarrek bertaratze-ara deitu dituzte elkarteko arduradunek, eta iradokizun nahiz proposamenak onartuko dituzte, elkarrekin aurrera egiteko.



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat 2 sarrera ditu



Abenduak 2 - Igandea  
12:15  
Donostiako Iurretan

**LAGUN ARO GBC**  
Caja Laboral  
saskibaloi partida

Zoazten parte hartzailek dituzte osteguna 14:30ak  
baino lehen 943 65 56 95 telefono zenbakia.





**Espainiako bandera jartzeko agindua** >

# Ikurrina jartzea eskatu dute

Tolosaldeko eta Leitzaldeko udaletxeetara Espainiako bandera jartzeko agindua bidali du Espainiako Gobernu ordezkariak

Bai Euskal Herriari ekimenak mendi martxa antolatu du Uzturrera, abenduaren 6an

**Asier Imaz**

Espainiako bandera jartzeko agindua Tolosaldeko eta Leitzaldeko udaletxe guztietara iritsi da. Zizurkilekin eta Lizartzarekin hasi ziren, eta ondoren, herriz herri, Espainiako Gobernu Ordezkaritzaren eskutitzak tianttaka iritsi dira.

Honela dio Karlos Urkijo Espainiako Gobernuaren ordezkariak sinatutako gutunak: *39/1981 legeko 3.2 artikulua araberak, Espainiako banderak udaletxe kanpoan egon behar du zintzilikaturik, eta eraikuntzaren barruan, leku esanguratsuenan.*

Bere agindua betetzeko, Urkijok hilabeteko epea ematen die udal ordezkariari. Epaia bideek edo lehen agindua ez betetzeak, epe horren luzapena ekarri du eskualdera. Hala eta guztiz ere, besteak beste, Zizurkilengertatu moduan, epaitegiek Espainiari eman diote arrazoiak. Agindua beraz zehatza da: Espainiako bandera, bai ala bai.

Espainiako Gobernu ordezkariari jaramon egiten ez dion alkateak, agindua euri zuzentzen baitzaie, ondorioak pairatuko ditu. Oier Eizmendi Leitzako alkatearen esanetan, honakoak izango lirateke ondorioak: «Gaitasun gabetzea, espetze zigorra eta isun ekonomikoa».

**'Banderen gerra', berriro**

Tolosan sortu zen *Banderen gerra* deiturikoa, 1981eko legealdian. Mirentxu Etxeberria zen alkatea, EAJ ordezkatzu. Espainiako gobernuak banderen legea

onartu berria zuen, eta udaletxe guztietara Espainiako bandera bidali zuen. Hori erantzuteko, HB alderdiko zinegotziek mozioa aurkeztu zuten udalbatzan, bandera Madrilerara bidali behar zela esanaz. Garaiko HBko zinegotziak horrela gogoratzen dute gertaera: «Tolosarrok bandera hori ez genuenez maite, errespetu guztiz, gehiago maite zuten leku batera bidaltzea eskatu genuen, hau da, Espainiako Barne Ministeriora». EAJren abstentzioarekin eta HBko zinegotzien baiezko botoarekin, mozioa aurrera atera zen, eta Espainiako bandera, berriro Madrilerara bidali zuen Tolosako Udalak. Mozioaren alde botoa eman zuten zinegotzien aurka, ondorioz izan ez zuen 6 urteko espetze zigorra eskatu zuten Espainiatik.

Bi hamarkada igaro ondoren, *Banderen gerra* berriro itzuli da eskualdeetara. Espainiako Gobernu Ordezkaritzak legea betetzeko eskatu die udalei, eta hauek, legearekin ados ez daudela erantzun dute: epaitegietan, mozioen bidez, eta herritarren elkarretaratzeekin. Ibarren, adibidez, iragan igandean elkarretaratzea egin zuten «inposaketa salatze».

Astelehenean, helburu berarekin, udalbatzak mozioa onartu zuen aho batez, Bildu eta EAJren aldeko botoekin. EAre eta ezker abertzalearen Ibarroko hainbat zinegotzi ohiek, egungo hautetsiei euren babesa azaldu nahi izan zuten udalbatza honetan, bilkura aretoan elkartuz.

Zizurkilekin eta Lizartzan legealdi hasieran egin moduan, gainon-



Igandean elkarretaratzea egin zuten Ibarren, *Ez garaitu, ez konbentzitu, inposizioa besterik ez lelopean.* A. IMAZ

tzeko udaletxeak informazioa herritarrei banatzen hasi dira, denon aurrean zer egin erabakitzeko. Adunak, otsailaren 23ra bitarte, hainbat ekimen egingo dituztela azaldu dute. Kanpaina honen inguruan hitz egiteko, atzo herri batzarra egin zuten kultur aretoan, Bai Euskal Herriari ekimenak deituta.

Ikaztegiatan, Ibarren, Bidegoianen, Lizartzan, Zizurkilekin, Berrobin, Adunak eta eskualdeetako herri gehienetan, ikurrina zintzilikatzeko deialdia zabaldu dute herritarren artean, «inposaketa eta mehatxuen aurrean desadostasuna adierazteko».

**Eragileen babesa**

Bai Euskal Herriari herri ekimenak eta Tolosaldeko udaletan ordezkariak gehien duen Bildu alderdiak babesa eta elkartasuna

azaldu nahi izan die «inposaketa honen aurrean aurkitzen diren udal eta herritar guztiei».

Bildutik azaldu dutenez, helburua herritarrek inposaketa salatu eta kalera ateratzea da: «Kontraesanak sortu nahian dabilta, eta herri honek bere borondatea erakutsi behar du, ikurrinaren aldeko ekimenak sortuz eta sustatuz. Herritar eta eragile guztiok elkar hartzen baldin badugu, Espainiako Estatuak nahi duenaren aurkakoa lortuko du».

Banderen gaia zertarako erabili nahi duten ere azaldu dute alderdiko kideek: «Gatazkaren konponbidean urratsak ematen ez dituen alderdiak eztabaida honetan kokatu nahi gaitu, marko demokratikoaren alde lan egin behar. Beraien ezintasuna ezkututzen du guzti honek, eta euren helburu bakarra, herri honen

borondatearen aurka egitea da. Edozein arlotan».

Bai Euskal Herriari herri ekimenak, bere aldetik, herritarrek batera hainbat ekimen antolatzeko asmoa azaldu du. Horretarako, herrietako lantaldeekin elkartzen hasia da. Eskualde guztiak «ikur arrotzen inposaketari» elkarrekin erantzuteko, abenduaren 6an, Espainiako konstituzioaren egunean, mobilizazioa antolatu du. Uzturrera mendi martxa egingo dute, 09:30ean Ibarroko Izaskun auzotik abiatuta. Deialdiarekin jada, hainbat udaletxe bat egin dute, Ibarrokoaren kasu.

Bai Euskal Herriari-tik azaldu dutenez, euren asmoa herrietako lantaldeekin bat egitea da. Euren harremanetan jartzeko, 645 70 31 06 telefonora deitu edo [baieh.tolosaldea@gmail.com](mailto:baieh.tolosaldea@gmail.com) helbidera idatzi behar zaie.

**Irudia** > **Ikaztegieta**

## HERRITARREN ERANTZUN ZABALA

Bai Euskal Herriari-k Ikaztegieta eredu azpimarratu nahi izan du: «Lanketa eredugarria egin dutela kalean ikusten da; balkoi guztiak ikurrinaz beteta daude». Espainiako bandera zintzilikatu aurretik, buzonada egin zuten Ikaztegiatan informazioa zabaltzeko. Ondoren, herri batzarra deitu zuten, zer egin erabakitzeko. Bandera jarri zuten

egunean, kazerolada eta 15 minutuz herriko argi guztiak itzali zituzten. Horrez gain, ikurrinak banatzen aritu ziren arratsaldean, kalean eta etxez etxe. Gero, buzonada berri bat egin zuten, Espainiako bandera kendu bitarte, ikurrina balkoietan jartzea eskatuz. Herritarren erantzunarekin «oso gustura» agertu dira ikaztegieta. i.g.l.

**Mauka** GALIRKO ESKAINTZA

**Negua goxo-goxo pasatzeko eskaintza paregabea**

Presioa **119,95€**

www.mauka.eu

berria

## Espainiako bandera jartzeko agindua →

Iñaki Aristeta ◊

Bai Euskal Herriari-ko kidea

## «Herri harresia sortzeko garaia da, indarrak elkartzuz»

Asier Imaz

Sinadura bilketatik hasi eta abenduaren 6ko mendi irteerara. Bai Euskal Herriari-k hamaika ekimen antolatuzeko asmoa du Espainiako banderaren «inposaketa» salatzeko. Iñaki Aristeta (Aduna, 1973) herri ekimeneko kideetako bat da.

**Bai Euskal Herriari ekimenak zein ekarpen egin dezake afera honetan?**

Gure naziotasun eskubidea jorratzen duen eragilea da Bai Euskal Herriari. Eskualdean, Espainiako banderaren inguruko agindua hainbat datatan etorri da, eta horrek, zentzu batean, erantzun bateratu bat eragotzi du. Indar metaketa bideratzea da helburua, hau da, inposaketari eskualdeko herritar guztiak bateratuta erantzutea. Udalekin biltzen ari gara, elkarrekin gauzak lantzeko; bai mozioak edo baita ekimenak ere.

**Kontraesan bat baino gehiago sortu du gaiak herritarren artean.**

Bai, horrela da, eta hori da euren helburua. Bai Euskal Herriari ez da sartuko joko horretan; ez da gogokiguz Espainiako bandera jarri behar den edo ez erabakitzea. Gai hori ez dugu jorratzen. Gure ustez, bultzatu behar dena herritarren erantzuna da; herritarrok altxa egin behar dugu, harresia sortu. Elkarrekin salaketa publikoa egin behar da, inposizio honi aurre egiteko. Jartzea edo ez, ez da udalaren erabakia: inposaketa bat da. Ekimenetik Espainiako bandera jartzen ez duen udala babestuko dugun moduan, jartzen duena defendatuko dugu.

**Desobediencia zibilaren beharra ikusten duzue?**

Orain arte bezala, desobediencia



A. IMAZ

zibila egin beharreko bide bat dela uste dugu. Bai Euskal Herriari ekimenari, ordea, ez dagokio hori erabakitzea. Desobediencia zibila martxan jarri behar den edo ez, herritarrek erabaki behar dute.

**Hainbatetan eskatu duzue ikurrina balkoietan jartzeko. Orain, horretarako aukera berri bat dago.**

Ikur arrotzak salatu ditugu, eta horretan jarraituko dugu, geureak aldarrikatuz. Espainiako bandera ez da gure ikurra, bai ordea ikurrina. Gaur egun, ikurrina zazpi lurraldeetan gure nortasun ikur gisa onartzen da. Gehiago ere badira, baina lehen esan bezala, gaur egun ikurrinak ongi azaltzen du nortasun hori. Gurea defendatu beharra daukagu, etxe guztietako balkoietan ikurrinak jarri, ikur arrotzaren inposaketa salatzeko beste modu bat da.

**Hausnartu al duzue zergatik etorri den orain agindua?**

Euskal Herria euren menpe egiteko bide horretan beste urrats bat da. Ez da kasualitatea, indar metaketa bat proposatzen denean zatiketa bilatzen duen inposaketa ezartzea. Ez da joko horretan sartzeko garaia, geure ikurren inguruan elkartzeko baizik, kolore anitzeko herri harresia sortuz.

Oier Eizmendi ◊ Leitzako alkatea

Leitzako alkateak argi du aldaketa politiko batean gaudela; alde batetik, urratsak ikusten ditu, baina, bestetik, oztopoak. Espainiako banderaren «inposaketa», testuinguru horretan kokatzen du.

## «Alde batetik, gatazka gainditzeko urratsak daude, bestetik, oztopoak»

Asier Imaz Leitza

Espainiako bandera jartzeko agindua abuztuaren 16an iritsi zen Leitza. Egun, epaiketa bidean aurkitzen da auzia, Oier Eizmendi (Leitza, 1989) alkateak azaltzen duen moduan.

**Zehazki gutunak zer jartzen zuen?**

Gure udaletxeak Ikurren Legea delakoa ez zuela betetzen, eta Espainiako bandera jartzeko hilabete gentuela.

**Zein urrats eman dituzue denbora honetan?**

Aurreneko gauza, geneukan informazio guztia abokatuari pasatzea izan zen. Berak esan zigun prozesura nolakoa izango zen, zein izango ziren epeak.

**Helegiterik aurkeztu al zenuten?**

Beste herri batzuetan ez bezala, gu oraindik aukera horretara ez gara alegatu. Hasieran hilabeteko epea ematen dizute bandera jartzeko, eta ez baldin baduzu epe horretan jartzen, tartean Estatuaren abokatu sartzen da. Ia beste hilabeteko epea ematen dizu honek, eta ez baduzu jartzen, administrazioarekiko auzi prozesua irekitzen dute udalaren aurka. Kasu honetan, legea betetzen duzula idatziz azaltzeko 10 egun ematen dizkizute. Hori ez baldin baduzu egiten, isuna jarri eta epaiketa hasten da.

**Beste herrien adibidea ikusirik, epaitegiek zer esango duten jakina da.**

Legea oso garbia da kasu honetan; epai asko egon dira aurretik. Nahi edo ez nahi bandera jarri be-



MAIER UGARTEMENDIA

har duzula esango dute. Epaila-aren agindua ez baldin baduzu betetzen, agindu zuzen bat ez betetzea leporatzen diote alkateari, zuzenean.

**Zer izango litzateke zigorra?**

Gaitasungabetzea, uste dut bi urte inguruko dela; espetxe zigorra, 3-6 hilabete inguruko; eta isuna, gehienez 10.800 eurokoa.

**Ibilbidearen zein puntutan dago Leitzatza?**

Administrazioarekiko auzi prozesua ireki berri digute, duela bi aste inguru. Isuna eta epaiketa iritsiko dira orain, nahiz eta noiz izango den ez dakigun.

**Herrira begira zerbait egin al duzue?**

Hasiera hasieratik gaia zabaltzen saiatu ginen, herriko aldizkaria, irrata... eta abarren bidez. Ondoren, hainbat batzar egin ditugu, eta orain fase horretan gaude, herriri zer iritsiko zaigun eta zein ondorio egon litezkeen esaten.

**Nola bizitzen ari zara alkate moduan, guzti hau?**

Garbia eta ukaezina da Euskal Herria aldaketa politiko baten aurrean dagoela, ikusi besterik ez dago ETaren asteburu honetako ekarpena. Bide orri bat planteatu du, baina zein izan da Espainiaren eta Frantziaren erantzuna? Alde batetik, gatazka gainditzeko borondate politikoa ikusten ari gara, eta bestetik, alderantzikoa. Ez dute gogorik, eta ez hori bakarrik, oztopatzen saiatzen dira. Euren jokabide politikoa bandera baten inposaketara mugatu dute, jakinda eskualde honetan ez dela onartua. Bandera balkoian ikusi nahi dute, euren aginduetara gaudela ikusi nahi dute. Baina hori ez da bidea. Hemen aldaketa politiko bat ematen ari da, eta bide horretan, denok jokatu beharra daukagu, egunen batean bukaerara iritsi nahi baldin bada.

arregi

30.000 k.o. ed. 8 • 20100 TOLOSA

Tel. 943 67 11 42

www.arregi.com

Gabonetako eskaintza berria

**Garbiñe Biurrun** ◦ **Epailea**

Beste epaile, abokatu eta arloko profesional gehienen moduan, Espainiako Gobernuak onartu duen tasa judizialen legearen aurka azaldu da Tolosako epailea; ez zuela horrelakorik espero esan du.

## «Herritarren babes judizial eraginkorraren eskubidea urratzen du lege honek»

**Iñigo Terradillos** Tolosa

Espainiako Gobernuak tasa judizialen zenbatekoa igotzeko legea onartu du. Ondorioz, aurrerantzean, lehen ez bezala, lantegiak eta herritar guztiek ordaindu beharko dute justizia erakundeetara jotzeagatik, eta lehen baino nabarmen gehiago, gainera. Epaileek, abokatuek, fiskalek eta prokuradoreek bat egin dute lege honek herritarren eskubideak murriztuko dituela esatean, eta atzera egin, eta bertan behera uzteko eskatu dute. Garbiñe Biurrun (Tolosa, 1960) Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko magistratuaren arabera, «lege honek justiziara jotzea oztopatzen du».

### Zer da lege berriaz nabarmenduko zenukeena?

Bi arlo aipatuko nituzke: batetik, tasa beraren kopurua, oso altua baita une honetan. Bestetik, lan arloan, tasarik ez zegoen arlo batean, orain ezarri egin dutela.

### Zein kopuruz ari gara hitz egiten?

Tasaren kopurua 100-150 eurokoa da hainbat prozedura edo auzitarako, eta gehienez 1.000 eurotik gorakoa izan daiteke, Auzitegi Gorenera jo ahal izateko. Beraz, pentasa epaitegiara jotzeko sarzeten diren zailtasunak.

### Ze neurritan igotza da kopurua?

Lehen oso kopuru txikia zen. Lan arloan, esaterako, gordailu bat zegoen, baina, langileek ez zuten ordaindu beharrik izaten, soilik enpresen edo enpresa buruek, he-

giteak aurkezteagatik. Kopuru hori, gainera, berreskuratu egiten zuten irabaziz gero. Gaur egun, irabazi edo galdu ordaindu egin behar da, eta baita langileek ere.

### Zein izan daiteke herritarrengan eragina duen kasu arrunt bat?

Dibortzioak, esaterako. Une honetan 300 euroko tasa bat ordaindu behar da epaitegian lehenengo tramiterako. Horri helegitea jarri nahi izanez gero, 800 euro ordaindu beharko dira, eta Auzitegi Gorenera jo nahi bada, beste 1.200 euro. Lehen, berriz, oso kopuru txikia izaten zen.

### Badago, ordea, doako justiziaren onura.

Doako justizia lortzen baduzu, ez duzu tasarik ordaindu behar, ez arlo zibilean, ez lan arloan ez eta inon ere. Horretarako, tramitatu egin behar da. Hau abokatuen elkargoetan tramitatu da, eta nire ustez orain pilaketa handi bat emango da, jende askok egin nahiko baitu eskaera. Lehen ere, abokatua doan izateko eskubidea zenuelako jende askok jotzen zuten onura honetara, baina orain nabarmen areagotuko da.

### Onura horizateko zer baldintza bete behar dira?

Baldintza ekonomikoak hartzen dituzte, batez ere, kontuan. Lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza baino gutxiago izan behar dute diru sarrerak. Familia unitatea osatzen duten pertsonen ezaugarriak ere hartzen dituzte kontuan.

### Ze helbururekin onartu dute tasen legea?

Helburua ekonomikoa da, baina bi xede ditu. Batetik, dirua biltzeko, lege aldaketa honekin askoz ere diru gehiago jasoko baitute. Bestetik, epaitegiei lana kenduko zaie, izan ere, zenbatuta dago tasa hauek ezarrita auzi gutxiago egongo direla, eta helegite gutxiago jarriko direla.

### Epaileak lege honen aurka azaldu zarete, eta gutxitan ez bezala, epaitegien atarietan elkarretarazteetan ikusi zaituztegu.

Gutziz kontra gaude. Epaileen aldetik esan dezakegu ia aho batez izan dela lege honen aurkako erantzuna. Oso bitxia den arren, epaileen elkarte guztiek bat egin dute. Epaileak askotan, korporatibistak izan daitezke, baina kasu honetan inolako korporatibismorik gabe elkartu dira denak, aurka azaltzeko. Fiskalek, epaileek, abokatuek, eta arloko profesional guztiek egin dute bat.

### Zer salatu duzue?

Pertsonen eskubideak murrizten dira, babes judizial eraginkorra murrizten baita. Oztupo eta zailtasun handiak jartzen zaizkie herritarrei justiziara jotzeko. Bestalde, abokatuak, eta beste profesional guztiak kezkatuta daude beraien lana ere jaitzi egingo delako.

### Legez kanpokoa dela aipatu duzue.

Espainiako konstituzioak aitortzen duen babes judizial eraginkorraren eskubidea urratuta dago lege honekin, eta aztertzen



IT.

ari dira Auzitegi Konstituzionalean helegitea jartzea.

### Uste duzu protesten ondorioz Espainiako Gobernuak atzera egingo duela?

Atzera erabat ez dute egingo, baina, agian aldaketaren bat egin dezakete. Tasen kopurua jaitea onartuko genuke orain denok. Dena den, oso bitxia izango litzateke, onartu eta gero boletinean dagoen zerbait, aplikatu ere egin gabe, erreformatzea.

### Justizia gisa horretan ukituko zutela espero al zenuen?

Ez. Inork ez zuen horrelako jarrearik espero.

### Nola funtzionatzen du justiziak beste lurraldeetan?

Egia da beste lurraldeetan tasa handiak ordaintzen direla, eta, egia da, baita ere, Espainian ohitura handia dagoela edozein arazo auzitatzeko, batez ere, orain arte ia doakoa izan delako. Baina, hori gertatzen da ez dagoelako beste bide eraginkorrik arazo edo gatazkak konpontzeko, eta orduan, gure eskubideak urratuak daudela iruditzen zaigunean epaitegiara jotzera derrigortuta gaude. Beste hainbat lekutan bezala, bitartekaritza moduko bi-deak erabili beharko liriateke.

## «Zorpetze aukera mugatzean dago gakoa»

Espainiako Gobernuak etxe kaleratzeen aurka onarturiko dekretua indarrean da. Babesa jasotzeko, jarritako baldintza ekonomiko guztiak bete beharko dira, eta lortzen dutenei ez diete bi urtean etxetik botako. Baina, kaleratzea atzeratu baino ez du egiten dekretuak, eta ez da etxea berreskuratzeko aukerarik izango. Neurri hori adabaki bat baino ez dela, eta konponbidetik urrun dagoela esan dute PP ez beste alderdiek.

### Zertan aldatu du egoera Espainiako Gobernuak onarturiko dekretuak?

Lege erreforma labur bat da. Etxe kaleratzeak atzeratzen dira, baina, ez da beste ezer lortzen. Izan ere, mailegua uneren batean ordaintzerik ez duenak, bi urteko baldintza izan dezake, eta bi urteren buruan, interesak pilatu zaizkion maileguarekin jarraitu beharko du ordaintzen. Beraz, arazoak bere horretan jarraitzen du lege honekin.

### Zer egin beharko litzateke?

Kaleratzeei aurre egiteko, lehen-dabizi ordaintzen etxea bera emate onartu beharko litzateke, hau da, bankuari edo kutzari etxea ematea, eta horrekin zorra erabat kitatzea. Hori ez dago legedian aurreikusita, eta gertatzen dena da, etxearekin enkantean lortzen den balioarekin ez bada zorra kitatzen dela. Beraz, etxea galdu eta zorraren zati batek bizirik jarrai-

tzen du; egoera absurdo bat ematen da.

### Eta, maileguei dagokienez?

Higiezinaren gainbalorazio bat egon zen, eta horren arabera maileguak eman ziren, batere mugarik eta neurririk gabe. Gaur egun etxe horien balioa nabarmen jaitsi da. Hor dago gakoa. Beste erreforma bat behar da, askoz ere sakonagoa, mailegua kontrolatuko duena. Pertsonen eta familien maileguak ezartzeko es-

kubidean muga batzuk jarri beharko liriateke. Maileguen intentsitate txikiagoa izango litzateke horrela. Frantzia, Alemanian, Italian edota Belgikan horrelakoak zehazten dira. Horrela bermatzen da familia baten zorra ez dela inoiz oso altua izango, eta etxebizitzaren prezioa askoz ere baxuagoa izango da, zorpetze aukera mugatuz gero, prezioek derrigor baxuagoak izan behar baitute.

# Villabonako Udalak Pello Zelarainen berehalako askatasuna eskatu du

Espainiako Auzitegi Nazionalak billabonatar presoak uztailetik aske geratzeko eskaria onartua duela salatu du

**Iñigo Terradillos** Amasa-Villabona

Galder Azkue Villabonako alkateak salatu duenez, Pello Zelarain billabonatar presoak uztailetik aske egon beharko luke, «Espainiako Auzitegi Nazionalak hala onartua duelako, baina Espetxe Zuzendaritza oztopatzen ari da bere askatasuna etengabe». Azkueren arabera, «oso larria» da egiten ari direna, eta horregatik, haren «berehalako askatasuna» eskatu dute. Izan ere, Villabonako Udalaren ustez, Zelarain ez askatzeak «bestelako helburu batzuk bilatzen ditu, gure herriak hartu duen norabide politikoa oztopatzea», hain zuzen.

Pello Zelarain Villenako (Alacant, Herrialde Katalanak) kartzelan dago, Villabonatik 1.600 kilometrorra. 26 urte daramatza espetxealdian. Bada, «zegozkion hainbat eskubideren jakitun zela» erredentzioak edo espetxe murrizketen eskaera egin zuen, eta urte honetako uztailean Auzitegi Nazionalak erredentzio zehatz batzuen eskaera onartu zion. Hala azaldu zuen Villabonako alkateak Birjinia Zelarain Pello Zelarainen alabarekin eta Rosa Arregi alkateordearekin batera atzo eginiko agerraldian.

Senitartekoez eta gertukoek bere askatasuna «berehalakoa» izan zitekeela pentsatu zuten, baina, Espetxe Zuzendaritzak aske geratzeko eskaera ez zuela beteko adierazi zuen orduan, «hainbat gauza argi ez daudelak» argudiatuta. Azkuek azaldukoaren arabera, «arrazoia bere alde dagoenaren uste irmoarekin», Zelarain «arrazoia eman eta kendu diene» gana» zuzendu zen berriro. «Espainiako Auzitegi Nazionalak ira-



Rosa Arregi alkateordea, Galder Azkue alkatea eta Birjinia Zelarain presoaren alaba, atzoko agerraldian. ir.

gan astean kaleratu zituen hiru auto judizialek, beste behin, arrazoia ematen diote, eta eskatzen dituen erredentzio edo murrizketak dagozkiola eta ebazpen hori bete egin behar dela azaltzen dute». Espetxe Zuzendaritzak, ordea, «ez du ebazpena bete nahi», eta, beraz, bere jarrerarekin jarraitzen duela salatu du Villabonako alkateak.

## «Mendeku gosea»

Galder Azkuek galdera bat luzatu du gertaera honen aurrean: «Espainiako Estatuak botere banaketa hain gorai patua denean, nola da posible arlo juridikoan gorenetako den epaitegi baten epaia Espetxe Zuzendaritzak ez-baijan jartzea, eurek aho bero demokratziaren printzipioak hainbestean aldarrikatzen dituztenean?».

Azkueren arabera, erantzuna argia da: «Pello espetxean daukate, arrazoia emanik ere, euren mendeku goseak ez duelako amaierarik». Villabonako Udalaren ustez, Zelarain ez askatzeak

«bestelako helburu batzuk bilatzen ditu». Euren arabera, egun bizi dugun egoera politikorekin du zerikusia: «Gure herriak hartu duen norabide politikoa oztopatzea da uneotan Espainiako Estatuaren helburu nagusia, eta hori zapuzteko helburua bere egin dutenez, Pello espetxean mantendu behar dute, ziurrenik zerbait baldintzatzeko helburua jarri diotela bere buruari».

## Babesa emateko deialdia

Villabonako Udalak hainbat ekimen jarri ditu martxan «herriaren aurrean egoera hau salatu eta herria mobilizatzen saiatzeko». Bihar ezohiko bilkura egingo dute, eta bertan bost puntu dibaijan jartzea, eurek aho bero demokratziaren printzipioak hainbestean aldarrikatzen dituztenean?».

ciarias-eko arduradun gorenari eta komunikabide guztiei adierazpena igortzeko konpromisoa hartzen dute, eta Espainiako Gobernari «gatazka politikoa duen erantzukizunaren arabera» ematea eskatzen diote, «mendeku politika bertan behera utziz».

Horrez gain, Villabonako Udalak Herrira mugimendua ostegunero burutzen ari den ekimen isilean parte hartzeko deia egiten die herritarrei. Hain zuzen ere, Gurea zinematik Pello Zelarainen etxearen atarira giza katea egiten ari dira ostegunero, 19:00etan.

Halaber, udalaren eskutik eskutiz bat jasoko dute etzi billabonatar guztiek. «Bertan, Pelloren egoeraren berri emango dugu, eta asteroko mobilizazioekin bat egin dezaten eskatuko diegu herritarrei», azaldu du Azkuek. «Beste hainbat kasutan bezala, honetan ere» herriak parte hartzea eta mobilizatzeko garrantzitsua izango dela uste du Villabonako Udalak.

## Xabier Amurizaren hitzaldia izango da gaur, Leitzako liburutegian

**I. Terradillos** Leitza

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako euskara zerbitzuak antolatuta, Xabier Amurizaren hitzaldia izango da gaur, Leitzako liburutegian, 19:30etik aurrera. *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako* liburua argitaratu berri du, *Euskara batuaren bigarren jaiotza* lanari jarraipena emanez, eta hitzaldian, euskara batuaren ezaugarrien eta erabileraren inguruko bere planteamendua azalduko du.

Hitzaldia baino, mahai inguru modukoa izan nahi du gaurko ekitaldiak, eta gaiaren inguruko eztabaida eta gogoeta sortzea gerturatzeko diren artean. Bada, euskara zerbitzutik herritar orori luzatu diote parte hartzeko gonbita.

## → Laburrak

### Ipuin kontaketa saioa, bihar, kultur etxean

**IBARRA** › *Nasrudin eta bere astoa* ipuin kontaketa saioa izango da bihar, Ibarako kultur etxean, 17:30ean. Baraka taldeak eskainiko du, 6 eta 10 urte bitartekoentzat izango da, eta euskaraz eta arabieraz kontatuko dute ipuina. Nasrudin bere astoarekin azokara joaten da saltzera, eta han gertatzen zaiona kontatzen du.

### Berdintasunaren inguruko kafe tertulia, bihar

**ALBIZTUR** › Berdintasunaren inguruko gogoeta egingo dute bihar, Albizturko udaletxean izango den kafe tertulian. 15:00etan hasiko da, eta herritar oro dago gonbidatuta.

## Hilberriak eta urteurrenak

## ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



## LOLI ITURBE ARANDIA

Azaroaren 27an hil zen, 88 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Goian bego-

Bere anai arrebak: Ramon (†) M<sup>o</sup> Lourdes eta Vicente Renobales, Iñaki (†) eta Elena Malz Polikarpo (†) eta M<sup>o</sup> Jesus Ayerbe, Angel eta M<sup>o</sup>txe Recondo, Maria Jesus (†) eta Vicente Zubeldia, Jose Luis eta Cristina Pasaban; izeba: Jesusa Arandia; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren arimaren aldeotz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzetezela **GAUR ASTEAZKENA arratsaldeko BOST TERDIETAN, UGARTE-AMEZKETAKO ERROSARIOKO ANDRE MARIA** parrokia elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**UGARTE-AMEZKETAN**, 2012ko azaroak 28a

Helbidea: Uzturre egoitza.

Oharra: Gorputz bella Tolosaldeko **FUNERARIA ORIA TANATORIOAN** egongo da, **ASTEAZKENA arratsaldeko 15:00ak arte**.



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	11°
HOTZENA	4°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@hitza.info

Tolosa Herria  
Hedabideak

BERTAKO  
HEDABIDEAK



Galtzaundi  
euskarat  
taldea



eta Tolosaldeko  
eta Leizaldekoko  
beste 77 eragile

Hitza-k  
Bai  
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

## Irudia Tolosa



## TOLOSALDEA GARATZENEK JASO DU SARIA

Tolosaldea Garatzenek jaso du jada Udalsarea 21ek, Jasangarritasunerako Udalerriaren Euskal Sareak, banatzen dituen Jardunbiderik Egokienei Sariak. Garapen agentzia finalista izan zen Heziketa mailan *Berandu baino lehen* filmarekin, Eskola Agenda 21eko ikastetxeetako ikasleekin ingurumenaren alde egindako lanarekin, hain zuzen. Tolosaldea Garatzenen eta Tolosaldeko udalen izenean Ibai Iriarte lehendakariak jaso zuen saria (irudian). HITZA

## Agurrak



**Urte askoan Eneko!**  
3 muxu potolo  
etxekoan partez!

AGURRAK  
943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●●● agurrak

## Agenda

### DEIALDIAK

- **Villabona.** Villabonako udal gobernuak 2012ko aurrekontuen balantzea egiteko bilera irekiak egingo ditu herritarrekin. Gaurkoa euskaraz izango da eta gaztelaniazkoa ostegunean izango da. Bi saioak Subijana etxean egingo dituzte 19:00etan. Halaber, aipatu saioetan udalak 2013ko aurrekontuei begira ekarpen prozesu bat irekiko duela argituko du, *Aurrekontuetan Ados!* lelopean.
- **Ibarra.** Koloneko minbiziaren prebentzio programaren barruko hitzaldia, gaur, 19:00etan, kultur etxean, euskaraz.
- **Larraul.** Kultur astearren barruan, gaur, 18:30ean, argazki diaporama, kultur etxean; eta 19:30ean, Bixente Serrano Izkoren *Nafarroaren konkista, 500. urteurren* hitzaldia, kultur etxean.
- **Tolosa.** Bidaia-erri Txokoak antolatuta, gaur, 20:00etan, Antxon Bandres Bidaia-erri Txokoan bertan, hau da, Errotan, *Fra Gjøvik til Tolosa* emanaldia. 90eko hamarkadan ETBn zegoen bidaiei buruzko *Doctor Livingsstone, supongo* saioan 1992. urtean Tolosan eta Norve-

gian grabatutako gaztelaniazko dokumentala da.

### TXOTXONGILOAK

- **Tolosa.** Titirijai jaialdiaren barruan, gaur, ikasleentzako emanaldiak 11:00etatik 14:00etara: Leidor aretoan *Blue bird* (Anita Maravillas); Topic zentroan *Criaturas particulares* (Roberto White); eta kultur etxean *Etxean goxo* (Rosa Martinez). 18:00etan, Topic zentroan, *Criaturas particulares* ikusteko aukera izango da, saio irekian.

### Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## harpidedun izateak badu saria

### zozketa

#### 1 Gorrotxategi sorta Bost turroi sorta

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

Plaza zaharra, 7. TOLOSA  
Tel.: 943 67 07 27 / 943 65 12 26  
[www.gorrotxategi.com](http://www.gorrotxategi.com)



#### 2 Fronton jatetxea

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

San Frantzisko ibiltokia, 4  
Tolosa  
Tel.: 943 65 29 41  
[www.restaurantefronton.com](http://www.restaurantefronton.com)



#### 3 Berria 2013 agenda Bi agenda

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



#### 4 Eureka zientzia museoa Bi lagunentzako bina sarrera

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**

Mikeletegi pasealekua, 43-45  
Tel.: 943 01 24 78  
[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es)



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte eta asteazken goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedunen  
**TXOKOA hitza** info